



Prensa oharra

Hazkunde erritmoari eusten dio zerbitzuak

KONTSUMITZAILEEK EROSKI AUKERATU DUTE *ONLINE* SUPERMERKATURIK ONENA BOSGARREN URTEZ JARRAIAN

- *Online* negozioak bikoiztu egin ditu salmentak pandemia aurreko mailarekin alderatuta
- EROSKI *online*-k beste 3.000 erreferentzian zabaldu du eskaintza, bezeroen beharrak ahalik eta gehiena estaltzen dituela ziurtatzeko
- EROSKIren *online* supermerkatuak Qualys (A+) segurtasun kalifikazio gorenaren ziurtagiria lortu du

Elorrio, 2021eko urriaren 27a.- [EROSKI](#)k bosgarrenez irabazi du [2020-2021eko Merkataritza Sarien](#) 'Urteko Webshop'-a *online* supermerkatuen kategorian, *hamargarren ekitaldian*. Espainian dagoen kontsumitzaile lehiaketarik handiena da, eta *retail*-aren saileko merkatu azterketarik handienetako bat egiten du. Bozketan, honelako aldaerak baloratu dituzte kontsumitzaileek beren gogobetetze mailaren arabera: kalitate-prezio erlazioa, produktu sortaren ugaritasuna, bezeroarenganako zerbitzua, eskariak eramateko zerbitzua, promozioak eta eskaintzak, ordaintzeko erak eta erabiltzailearen esperientzia.

Gaur egungo kontsumitzaileek eskatzen duten horretara egokitua dago EROSKIren *on line* negozio eredua. Eredua hori indartu egin da COVID-19ak eragindako osasun krisia dela medio, eta eutsi egin dio hazkunde erritmoari. *"2021ean, bikoiztu egin ditugu pandemia aurreko salmenta zifrak. Konfinamenduan EROSKIren online supermerkatua hautatu duten ia bezero berrien erdiak gurekin gelditu dira"*, azaldu du EROSKIren *Online* Negozioen zuzendariak, Mari Mar Escrigeak.

Hobekuntza etengabea: sorta zabaltzea eta segurtasun ziurtagiria

EROSKI *online* supermerkatuak 15.000 erreferentzia baino gehiago ditu elikagaietan eta freskoetan, eta aurten zabaldu egin du sorta hori elikadura arlokoak ez diren beste 3.000 erreferentzia sartuta, ziurtatzeko bezeroen beharrak ahalik eta gehiena estalita daudela erosketa egiten dutenean. Eskaintza komertzialik handiena egiten du, dendetako prezio eta promozio bereberekin, gainera. Horrela, kanal guztietan bermatua gelditzen da erosketa uniformearen esperientzia.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel.: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa



Era berean, TLS protokoloaren bertsio aurreratua ezarrita, Qualys (A+) segurtasun kalifikazio gorena lortu du EROSKI *online*-k. *"Segurtasuna izan da betidanik gure merkataritza elektronikora sartzeko mugetako bat. EROSKI online-n indartu egin dugu segurtasun maila protokolo aurreratuak ipinita, eta Qualys konpainiaren kalifikazio gorenarekin ziurtatuak izan dira, bera da liderra segurtasun soluzioetan"*, azaldu du EROSKIren *Online* Negozioaren zuzendariak.

Kanal ugariko supermerkatua

Gainera, EROSKI jarraitzen du kanalak are gehiago ugaritzeko lanean. Orain berriki, *online* eskariak emateko modalitatea zabaldu du Bizkaian, armairu adimendunekin. Zerbitzua, zehazki, Leioako EROSKI Artea hipermerkatuan dago eskura. Sistema horrek erosketak hartzeko gure proposamena indartzen du erkidego honetan. EROSKI 2020an jada ipini zuen bat, Arrasaten duen hipermerkatuan (Gipuzkoa), eta aitzindaria izan zen EAEko banaketan. *"Gure bezeroek oso ondo iritzi diote Arrasateko armairu adimendunen bidez online eskariak jasotzeko sistema honen esperientziari. Batez ere erosotasuna estimatzen dute, erosketa berek nahi duten orduan har baitezakete, eta horrekin batera zerbitzua doan izatea"*, azaldu du Escrigek.

Gaur egungo kontsumitzaileek eskatzen duten horretara egokitua dago EROSKIren *on line* negozio eredu. Supermerkatu bizkorra eta eraginkorra da, edozein gailutara egokitua. Bezeroen erosketa esperientzia hobetzen du, eta, gainera, erosketa denbora laburrean egiten laguntzeko erraztasunak ematen ditu (denda fisikoan egindako erosketak, azken eskariak, zerrendak...). Horretaz gainera, EROSKI *online* egindako eskariak eskura emateko lau modalitate ditu. Ohi bezala, etxera eramatea; bera da zerbitzua EAE, Nafarroa eta Balear osoan eskaintzen duen bakarra, eta, gainera, erosketa egunean bertan ordu gutxiren buruan eramateko zerbitzua dauka. Hala berean, etxean zain egon ezin dutenentzat, 45 bilgune ditu, askotariko kanaletakoak: dendakoa, autoz zein oinez jasotzeko, eta armairu adimendunak; guztiak ere doakoak eta 4 ordu igaro baino lehenago eramateko prest izaten dutenak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel.: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

Online prentsa aretoa